

## ■ erantzugu... ■



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

**Zergatik gertatzen dira Afrikan, batez ere, halako gatazka odoltsuak?**

■ **Armen** arazo izugarria ezin dugu ahaztu gai honi buruz hitz egitean. Armen salerosketak duen eragina kontuan hartu beharra dago, garrantzi handia du-eta gatazka horietan.

Estatuen interesak eta, batez ere, botere-suenenak jokoan daude. Horregatik, gatazka horiek ez

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Guztiek izen-abizena eta telefono zenbakia beharko dute izan. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

Hurrengo galdera:

*Txakurrek kalean muturrekoarekin eta lotuta ibili beharko al lukete?*

amaitzea nahi dutela dirudi. Esan behar da Afrikako buruzagi asko oso ongi kontontzen direla Ipar Amerikako eta Europako gobernuen,

bai armen arazoan, bai beste ekonomi gaitan, gutxiengo baten interesen bila. Bien bitartean, herri xumea gosez eta gatazka odoltsuen

erdi-erdian dago. **T. Kakwata, X. Irigaray**

■ **Ez dut uste** gure inguruko egunkari, irrati eta telebista kateak ikusi ondoren Afrikari buruz askorik dakigunik. Albiste agentziek izugarriko manipulazioa egiten dute. Ez dago informazio kontrastaturik. **Garbiñe Diez (Gasteiz)**



## galdeiozu...

**Juan Ignacio Perez**

EHUKO EUSKARA ERREKTOREORDEA

**Egun posible ikusten duzu euskal unibertsitate bat sortzea (guztia euskaraz)?**

Ixiar Martinez [Donostia]



■ **EPE LABURREAN EZ** dut posible ikusten. Hasteko, Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen Unibertsitatea Antolatzeko Legeak itxi du bidea. Bestalde, horretarako bete beharko liratekeen baldintzak ez dira betetzen, nire ustez. Dena den, etorkizunari begira, nik ez nuke horren alde egingo, eleantzasuna aberasgarria baita.

Otsailaren 9tik aurrera

**Jean Haritzelhar** • EUSKALTZAINBURUA izango da

Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari

**Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain**

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-  
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta  
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere  
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

**Demokraziaz**

Demokraziak herri hau aldatu duela esan daiteke, baina galdetu beharko litzateke ea benetan gure herriak merezi duen bezalako demokrazia izatera ailegatu den.

20 urtetan demokraziak ekarri duen askatasunaren mugak lehen baino handiagoak ez dira —hori ez da zaila—, baina, nahiz eta askatasunak beharrezkoak diren, ez dira nahikoak oraindik. Arrazoiak badituzte galdera hau egiteko, hau da: oraintxe bertan prozesu politiko baten barruan gaude, eta honek bizi garen sistemaren egiturak azkenik apurtu ahal ditu?

Egintzak egintzak dira, eta testu honetan esan daitekeena gutxi da. Bukatzeko, gogoeta egitera gonbidatzen dut, eta entzun nahi dutenei deialdia egiten diet urratsak aurrera egiteko eta geldialditik ihes egiteko, gobernuak

geldi gera gaitzen nahi duelako. Ezin dugu aukera alferrik galtzen utzi. **Mikel Razkin** • IRUÑEA

**Radio Nacional de Euskadi**

Atzo, autoz nindoala, irratia piztu eta, goizero bezala, kazetariak egunkariei errepasoa egiten ari ziren. Halako batean, mugan dagoen aduanetako etxolak bota egin behar dituztela dioten berria aipatu du batek; ondoko kazetariak jarraitu du esaten Espainiatik Frantziarako pasabide hori oso galduta dagoela, hondakinez bete. «Beno, Frantzia sartzean konturatuko gara bertan gaudela hor dauden kolumna tzarrak direla-eta», dio, edo horrelako zerbaite.

Harrituta, emisoraz nahastu ote naizen begiratu dut eta ez, irrati-ko memoria ondo dut. Ez da Radio Nacional de España, ezta COPE ere; tartean ez dago tertuliano euskalfoborik. Radio Euskadi da, eta ez nolana hiko kazetariak: Jose Felix Azurmendi eta Almudena Cacho. Tripako min ederrarekin itzali dut irratia. Radio Euskadin eta erraietaraino espainol! **Xabier Gorrotxategi** • DONOSTIA

**Bi neska zulu artean**

Larunbateko *Liluratura* atalak Riana Scheepers idazle hego afrikarrari buruz hitz egiten zuen. Eta gutun honen bidez bertan ematen zen informazioa betetzera

nator; izan ere, artikuluan aipamen baten falta sumatu nuen. Artikuluan aipatzen zen bezala, Riana Scheepers-ek emakume zuluaren ohiturei buruz idazten du, eta bere liburua afrikaanetik hainbat hizkuntzataraz itzuli izan da. Zoritzarrez, euskal itzulpenik ez da oraindik, baina gaztelaniazkoa iaz atera zen Durangoko alaba baten eskutik, Kristina Goikoetxearen eskutik hain zuzen. Kristina Holandan eta Hego Afrikan bizi izana da, eta zuzenean afrikaan hizkuntzatik itzuli du liburua. Holandan nederlandera ikasi du, eta Hego Afrikan afrika-ansa eta kultura zuluaz ezagutzeko parada izan zuen. Meritu handiko neska horrek bere lehen liburua itzultzeko azkenean gaztelania aukeratu zuen, batik bat Bartzelonako Icaria argitaletxeak eskaini ziolako aukera hori. Espero dezagun hurrengo ekarpena euskaraz etortzea. **Iñaki Serrano** • EIBAR

• MONTXO •

